

100na

**100 egun guztion
ongia lortzeko lanean**

**100 días trabajando
para el bien común**

**María Chivite,
Nafarroako
Lehendakaria_**



**María Chivite,
Nafarroako
Lehendakaria_**

Duela 100 egun pasatxo, Gobernua berriak bere erantzukizunak hartu zituen. Bidaiari hasiera eman genionean, berretsi genuen Guztion ongia lortzea zela gure ibilbidea. Nafarroa guztion artean egin nahi dugu.

Nafarroak aurrean dituen erronka nagusien artean, enpleguaren kalitatearekin loturikoak identifikatu genituen, bereziki gazteentzako enpleguarenak; halaber desberdintasunaren aurkako borrokaren ingurukoak edota generoarenak. Disruptiboak izan behar dugu, berritzaileak, Ongizatearen Estatua indartzeko, zahartzea, trantsizio teknologikoa eta aldaketa klimatikoa bezalako erronka berrien aurrean. Eta hori guztia lurralde aldetik kohesioa duen Nafarroan egin behar dugu, Nafarroa anitzean, dibertsitateari balioa emanaz aberastasunaren elementu gisa.

Gobernu berriak Kontratu Sozial hirukoitza sinatu du herritarrekin. Alde batetik, konpromisoa hartu dugu aberastasuna sortzeko, eta Espezializazio Adimentsuaren Estrategia, lehen Plan Modernoa zena, gure garapen-poloa izango da. Bestetik, desberdintasunaren aurkako borrokarekiko konpromisoa hartu dugu, eta Osasuna, Eskubide Sozialak eta Hezkuntza berdintasun sozialaren palanka nagusiak izango dira. Azkenik, 2030eko Agendaren erronkara egokitutako Kontratu Sozial berria nahi dugu.

Horretarako, Nafarroako balio nagusia dugu; hau da, ezagutza balio lehiakor moduan. Nafarroak talentua sortzeko gaitasun aparta du, eta hori ahalik eta azkarren bideratu behar da berrikuntza oso batera, eta gizartearengana iritsi dadin.

Hori guztia dela-eta, 100 egun hauen balantze gisa, hemen aurkezten dizkizuegu Nafarroako Gobernuko Departamentu bakoitzak ezarritako lau neurri esanguratsuenak.

**Lehendakaritzako,
Berdintasuneko,
Funtzio Publikoko
eta Barneko
Departamentua _**



**Lehendakaritzako,
Berdintasuneko,
Funtzio Publikoko
eta Barneko
Departamentua _**

- >> 1. Nafarroako Gazteria Institutua sortu du arlo horretan politika publikoei lehentasuna emateko erreminta gisa.
- >> 2. Negoziazio kolektiboaren ondoren, 2019. urterako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu du, eta, enplegu publikoa egonkorra izan dadin, arauan ezarritako berritze-tasari dagokionean, legez ahal den gehiena estali du. Guztira 725 plaza jasotzen dira, 337 unibertsitatez kanpoko irakasleenak (Hezkuntza Departamentua), 215 Osasunbideako osasun-arloko langileentzat eta 169 Administrazio Nukleoarenak.
- >> 3. Nafarroan apustu eta jokorako etxe berriak ezartzeko luzamendua onartu du. Jokoaren inguruko araudia aldatzeko departamentu arteko taldea sortu du.
- >> 4. Estatuko Gobernuarekin akordioak egin ditu Nafarroako eskumen-erregimenaren inguruko hainbat gairi dagokienean; hala nola, 4/2019 Foru Legea, otsailaren 4koa, Nafarroako Toki Administrazioa Berritzeari buruzkoa; 27/2018 Foru Legea, abenduaren 24koa, 2019. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa; eta 5/2019 Foru Legea, otsailaren 7koa, Nafarroako Foru Komunitatean guraso bakarreko familiak egiaztatzeari buruzkoa.

**Lurralde
Antolamenduko,
Etxebizitzako,
Paisaiako eta Proiektu
Estrategikoetako
Departamentua _**



**Lurralde
Antolamenduko,
Etxebizitzako,
Paisaiako eta Proiektu
Estrategikoetako
Departamentua _**

- >> 1. Zerga-neurriei buruzko legearen barnean, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko proiektuetarako diru-laguntzen gaineko salbuespenak onartu ditu, hiri-berroneratzeko esku-hartzeak bultzatzearen.
- >> 2. Alokairuko parke publikoko familientzat laguntza sozioedukatiborako taldea sortu du.
- >> 3. Erripagañako auzoan zerbitzuak jartzeko eta hiri-berrantolaketarako hasierako plan orokorra eta premien azterketa egin ditu, Osasun, Hezkuntza, Kultura eta Kirola eta Lurralde Kohesiorako Departamentuekin batera.
- >> 4. Bizigarritasunaren inguruko 142/2004 Foru Dekretua berrikusteari eta aldatzeari buruzko parte-hartze prozesua abian jarri du, etxebizitza-arloko errealitate berrietara egokitzearen.

Lurralde Kohesiorako Departamentua _



Lurralde
Kohesiorako
Departamentua _

- >> 1. Belate-Almandozko tunelak zabaltzeko erabakia hartu du, horietan segurtasun handiagoa izatearren. Era berean, Europa barneko sareko tuneletarako segurtasuneko gutxieneko baldintzei buruzko 2004/54/EB zuzentaraura (2004ko apirilaren 29koa) egokitzea erabaki du.
- >> 2. Parlamentariekin Lan Mahaia eratu da, oinarrizko adostasun politikoa lortzearren, errepideen arloan behar adinako finantza izatea ziurtatze aldera.
- >> 3. Iruña eta Soria arteko errepide bidezko garraio publikoaren linearen emakida berria abian da. Urtean 110.000 bidaiari baino gehiagori ematen zaie zerbitzua, eta autobus berriak hobeak dira segurtasunaren, irisgarritasunaren, erosotasunaren eta ingurumen-eraginkortasunaren aldetik. Gainera, txartelaren prezioa %6 jaitsi da.
- >> 4. Despopulatzearen aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuaren Batzordea sortu da. Erronka demografikoaren eta despopulatzearen gaineko helburuak eta jarduteko ardatz estrategiko nagusiak definitzeaz gain, ekimen zehatzak bultzatuko ditu.

Ekonomia eta Ogasun Departamentua_



**Ekonomia
eta Ogasun
Departamentua_**

- >> 1. Zerga-neurriari buruzko hiru lege-proiektu onartu ditu: bereziki lan-errenten gainean eragiten duen PFEZ tarifaren deflaktazioari buruzkoa; amatasun/aitatasun dedukzioei buruzkoa amatasunaren aldeko apustua egiteko; eta Ondare Zergan jarduera enpresarial eta profesionalarekin loturiko ondasunak aldatzeari buruzkoa, enpresa-arloko ekintzailtza sustatzearen.
- >> 2. Ogasuneko teknikariaren eta Ogasuneko kudeatzailearen beharrezko plazak onartu ditu, horien plazen oposizioen deialdia azkartzeko helburuarekin, zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko.
- >> 3. Hitzarmen Ekonomikoa negoziatzeko eta 2020-2024 bosturtekoaren oinarritzko urteari dagokion ekarpen likidoaren zenbatekoa zehazteko prozedurari hasiera eman dio.
- >> 4. Salbuespen gisa, finantza-merkatuen egoera dela-eta, interes-tasaren erorketak orokorrak izanik, eta zor publikotik eratorritako finantza-gastuetan aurrezpenak lortzearen, maileguak berriz finantzatzeko plana abian jarri da.

**Garapen
Ekonomiko eta
Enpresarialeko
Departamentua_**



**Garapen
Ekonomiko eta
Enpresarialeko
Departamentua_**

- >> 1. Berrikuntza Digitaleko Gunearen eta Medikuntza Pertsonalizatuko Estrategia Integralaren inguruko departamentu arteko batzordeak sortu dira. Orizont bizkortzailea berriro atera da, nekazaritzako elikagaien sektoreko zortzi enpresa ekarleren erronkak sartuaz.
- >> 2. Nasertic-en kapitalean beste bi milioi euro jartzeko espedienteak onartu dira. Horretarako, departamentuaren funtsak erabiliko dira, eta, modu horretan, inbertsioak egin ahal izango dira konputazio aurreratuan eta sekuentziazio genetikoan.
- >> 3. S3 Estrategiako Batzorde Zuzentzaileari lanerako egutegia aurkeztu zaio 2020-2023 erronka estrategikoak eta dagozkien plan estrategikoak egiteko.
- >> 4. Big Data Laborategiaren lehen edizioa abian jarri da NUPen eta Nasertic-en lankidetzarekin. Lehen edizioan, industria-arloko 13-14 enpresak eta enpresentzako zerbitzuen sektoreko 13-14 enpresak parte hartzen dute.

**Migrazio
Politiketako
eta Justiziako
Departamentua_**



**Migrazio
Politiketako
eta Justiziako
Departamentua_**

- >> 1. Emakumeen aurkako Indarkeriaren Balorazio Osorako Unitatearen premia espezifikoak artatu dira. Justiziako Zuzendaritza Nagusiak Unitate horren premien etengabeko segimendua egin du, etengabeko komunikazioa erraztuaz. Aldi berean, SAM sartzearekin, genero-indarkeriaren biktimentzako arreta osoa sakontzeko aukera ematen du.
- >> 2. Delituaren biktimei arreta psikologikoa eskaintzeko lizitazio berria egin da, eta biktima eta erasotzaileentzako programa terapeutikoak abian jarri dira; horien barnean sartzen dira biktima txikientzako, espetxean dauden sexu-erasotzaileentzako eta seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriarako programa espezifikoak.
- >> 3. Lehen Instantziako Auzitegi berria (10. zk.) berehala jarriko da abian familientzat bakarrik.
- >> 4. Bidaidarik gabeko Adingabeekin Lehen Esku-hartzea egiteko Protokoloa. Segimendubilerak lehen esku-hartzean inplikaturiko agente ezberdinekin. Sentsibilizatzeko kanpaina instituzionala Migratzaileen Nazioarteko Egunean.

Hezkuntza

Departamentua_



Hezkuntza Departamentua

- >> 1. Lehendabiziko aldiz, Zuzendaritza Nagusi propioa izateko garrantzia eman dio Hezkuntza Departamentuak LHri, eta hor baliabide espezializatuak gehitu egin dira. Aurtengo ikasturtearen hasieran, eskaintako plazen okupazio-indizea %95etik gorakoa izan da.
- >> 2. Skolae hezkidetza programa orokortzeko bigarren fasea abian jarri da; 2019-2020 ikasturte honetan ehun bat ikastetxe publiko eta itundu berrietara iritsi da. Pasa den azaroaz geroztik, Nafarroako bi mila irakasle baino gehiagok modu aktiboan hartzen dute parte prestakuntza presentzialeko Skolae Jardunaldietan.
- >> 3. Lanerako barne-taldea eratu da Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoekin mantentutako ikastetxe guztien artean baliabide eskaseko ikasleak modu orekatuagoan banatzeko prozedura ezartzearen.
- >> 4. Ikasturterako 3.334 irakasle kontratatu dira, iaz baino 781 gehiago Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetarako, Hezkuntza Berezirako, Bigarren Hezkuntzako Institutuetarako, Hizkuntza Eskola Ofizialetarako, Arte Eskoletarako eta LHko Zentro Integratuetarako, beharrezko plantillen aurreikuspena betetzearren.

Eskubide Sozialetakoa Departamentua_



**Eskubide
Sozialetako
Departamentua_**

- >> 1. Enpleguko politika aktiboen gaineko apustu irmoa egin da. NEZari kreditua 1,8 milioi euro gehitu zaio, 5,3 milioira iritsi arte. Gazteak eta iraupen luzeko langabeak laneratzeko neurriak eta funtsak gehitu dira (1,1 milioi), autonomo berrientzat 1,1 milioi, Enplegurako Zentro Berezientzat 2 milioi; Prestakuntza eta Enpleguko Programa Integratuen deialdi berria egin da, toki-erakundeek langabezian zeuden pertsonak kontratatzeke 0,25 milioi jarri dira. Dirulaguntza duten kontratuak 1.445 izatera iritsi nahi da. Deialdi berriak lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzeko eta desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko laguntza emateko pertsonen deialdiak.
- >> 2. Nafarroako geografia osoan Mendekotasuneko prestazioak eta zerbitzuak izapidetzeko sarbide telematikoa osatu da, eta Osasun Etxe eta Osasun Mentaleko Zentro guztiak sartu dira, mendeko pertsoneri arreta hobea eskaintzearren, eta, era horretan, arreta azkarrago eman eta herritarrentzat erosoago izateko, orain arte soilik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen (OGZ) bidez egin baitzezaketen.
- >> 3. Beste bi kontzertu sozial berri egin dira desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako Garraio Egokituan eta Eguneko Zentroan. Halaber, beste hiru kontzertu sozial izapidetzeko prozesua abian jarri da.
- >> 4. Nafarroako Berrikuntza Sozialeko Laborategi Iraunkorra abian jarri da. Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Nafarroako Unibertsitatearekin ezagutzaren eta berrikuntzaren inguruko akordioa egin da.

Osasun

Departamentua_



Osasun Departamentua

- >> 1. Lehen Arretaren aldeko apustua egin da, eta, modu horretan, erizaintzako eredu berriak abian jarri dira, osasun-arloko oinarritzko sei zonatan gidatu beharrekoak, hauskortasuneko gaixoen gainean eragina dutenetan; halaber, etxez etxeko laguntza jarri da gaixo kroniko eta patologia anitzekoentzat, eta eskola-munduan eskariaren kudeaketa eta arreta komunitarioa eskaini dira. Horrez gain, oinarritzko mailaren bereizmen-ahalmena gehitu da (dermatoskopiaok, RX eskualdeko nagusian, erretinografoak eta tonometroak) sistemaren eskeman.
- >> 2. Departamentuak ospitale-maila bultzatu nahi izan du; hau da, kontsulteren eredu berria, zirkuituak eta funtzioak berriz definitzea eta integrazio geografiko (Iruña, Tuter eta Lizarraren arteko konexioa) eta funtzional bikoitza herritarrentzako zerbitzua hobetzeko (aurrerapen garrantzitsuak Dermatologian eta Errehabilitazioan) eta profesionalak erakarri eta fidelizatzeko.
- >> 3. Osasun Departamentuak Medikuntza Pertsonalizatuaren (MP) gaia birbideratzeko lan estrategikoa egin du, gaia Departamentuekin (Garapen Ekonomikoa, Unibertsitateak, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala) eta agente inplikatuekin batera kudeatuaz, oinarri sendoak finkatzearen, Nafarroak XXI. mendeko Medikuntza eremu naturalean zuzendu dezan, betiere genetikarekin lotuta, datozen urte gehienak horrek markatuko baititu gaixoen osasunerako aurrerapen garrantzitsuekin.
- >> 4. Adierazle guztiek erakusten dute udako itxaro-zerrenden goranzko joerari eutsi diogula. Ildo horretan, urrats premiazkoa eta garrantzitsua izan da profesional medikoekin elkarrizketak egitea.

Herritarrekiko Harremanetako Departamentua_



**Herritarrekiko
Harremanetako
Departamentua**

- >> 1. Sarean Euskaraz jardunaldiaren III. edizioak erabateko arrakasta izan du, bost ikastetxe ezberdinetako bostehun bat ikaslek hartu baitute parte. Hainbat ikastetxek ezin izan dute parte hartu edukiera dela-eta.
- >> 2. Iruzkunen, Juslapeñan, gorpuzkinak desobiratzeko lanak egin dira. 20 gorpuzkin aurkitu dira. Legegintzaldian egin den lehen desobiratzea da eta bigarren handiena Nafarroako Gobernuak memoriaren inguruko politika publikoak bultzatzeko egiten direnetik. Gainera, Memoriadun Eskolak programaren barnean, 150 ikaslek zuzenean ezagutu ahal izan zituzten desobiratzeko lanak, horiekin lotura estua duten hiru pertsonaren lekukotzak ezagutzearekin batera.
- >> 3. Euroeskualdearen batzarra Iruñean: “Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa” Euroeskualdearen ezohiko batzarra egin da azaroaren 4an Iruñean. Mugikortasuna, enplegua eta enpresa-lehiakortasunari buruzko Europako hiru proiekturi laguntza ekonomikoa ematea onartu zuten.
- >> 4. Next Estrategiaren web orrialdea. Next Estrategia kanpoan bizi diren herritar nafarrekiko harremanak bultzatzera bideratutako estrategia da.

**Unibertsitateko,
Berrikuntzako
eta Eraldaketa
Digitaleko
Departamentua_**



**Unibertsitateko,
Berrikuntzako
eta Eraldaketa
Digitaleko
Departamentua_**

- >> 1. Berrikuntza Gune gisa, Medikuntza Pertsonalizatuaren Nafarroako Estrategia Integrala ezartzeko Departamentu arteko Batzordea sortu eta horren Lehendakaritzaz arduratu da Departamentua. Neurri horren bitartez, genomikaren ezarpena egin nahi da osasun publikoan, eta osasun, ikerketa, berrikuntza eta garapen enpresarialaren mailako emaitzetan ustiatu nahi da. Batzordearen helburua izango da gaixo bakoitzaren diagnostikoa eta gaixoari aplikaturiko tratamendua hobetzea, genomika berrikuntza-eremu eta garapen-aukera moduan bultzatzearekin batera.

- >> 2. 29 milioi euroko kreditua erreserbatu da zentro teknologiko eta ikerketa-zentroetarako I+G proiektuen laguntzak hainbat urtetan banatzeko. Laguntzak urtebetekoak izatetik hiru urtekoak izatera igaroko dira, eta, era horretan, izapideak murriztu eta ikertzaileen gaitasuna gehitu ahal izango da ingurune eta ideia berrietara egokitzeko finantzaturiko proiektuaren garapenean zehar. Horren bitartez, zentro teknologikoen eta ikerketa-zentroen eskaerei erantzuna eman nahi zaie, deialdiak ikerketa-prozesuaren premietara egokitzea eskatzen baitute.

- >> 3. Banda Zabalaren Plana Foru Intereseko inbertsio moduan aitortu da, banda zabala Nafarroako geografian zehar azkarrago hedatzeko eta lanak zuzentzeko.

- >> 4. Departamentu arteko lantaldea sortu da Unibertsitate, Hezkuntza, Osasuna eta NUPen artean, Medikuntzako, Psikologiako eta Erizaintzako eraikin berria eraikitzeko ideien lehiaketaren lizitazioa modu aktiboan lantzeko.

**Landa
Garapeneko
eta Ingurumeneko
Departamentua_**



**Landa
Garapeneko
eta Ingurumeneko
Departamentua**

- >> 1. Urriaren 15etik aurrera, NPEren zuzeneko ordainketen aurrerapena ordaindu da (Galiziarekin batera, Estatuan ordaintzen lehen komunitatea). Zenbateko osoa 52,7 milioi eurokoa da, nekazaritza-ustiapenen 10.078 titularrentzat, eta laguntza desakoplatuen eta beste laguntza akoplatu batzuen %70ari dagokio, tartean arrosa, oskoldun fruituak eta kalitatezko lekaleak daude. Aurrerakin hori ordainduta, sektoreak likidezia izango du ustiapenetan 2019ko kanpainako lanak egiten hasteko.

- >> 2. Nafarroako 2019-2023 Baso Agenda onartu da; horrekin baso-plangintza eguneratu da hogei urte bere horretan egon ondoren, eta, horretarako, aintzat hartu dira iraunkortasunaren, orekaren eta ingurumen-kalitatearen gaineko irizpideak.

- >> 3. Lau laguntza-ildo espezifiko onartu dira (3,4 milioi euro) Erdiko Zonan uztailean izandako uholdeek nekazaritza eta abeltzaintza produkzioetan eragindako galerei eta azpiegituretako kalteei aurre egiteko. Laguntzekin kalteen %100 ordainduko da lehendabiziko aldiz, egoera salbuespenezkoa izan zela kontuan hartuta.

- >> 4. Mehatxatutako Fauna eta Flora espezieak babesteko Katalogoak eta Zerrenda onartu dira. Foru-dekretu berri batean jaso dira basoko espezie ahulak edo desagertzeko zorian aurkitzen direnak eta Estatuko katalogoan jaso gabe daudenak. Ingurumen-eragineko jarduerak arautzen dituen Foru Legearen proiektua, LEFRAIA.

Kultura eta Kirol Departamentua_



**Kultura
eta Kirol
Departamentua_**

- >> 1. Kultur Eskubideen gaineko Foru-legea garatu da. Kultur eta Arteen Nafarroako Kontseilua osatzeko, antolatzeko eta funtzionamendurako erregelamendua eta Nafarroako Kulturaren Atari Digitalaren proiektua egin dira.
- >> 2. Kultur arloko laguntza publikoen deialdiak berrikusi dituzte agente inplikatuak. Erakunde hartzaileekin bildu dira laguntza publikoen ezaugarriak bateratzeko.
- >> 3. Kirolean berdintasuna sustatzeko neurriak landu dira. Telebista bidez emakumezkoen taldeen hamalau kirol-ekitaldi eman dira. Nafarroako Kirol Jokoetan modalitate eta kategoria berriak sartu dira. Halaber, kirol-jarduera mistoak gehitu dira.
- >> 4. Kirol-azpiegituren errolda egin da. Kirol-instalazioen errolda eguneratzeko erreminta informatikoa abian jarri da.

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



AGENDA
2030